

Henning Mankell (Stockholm, 1948) suediar idazle ezaguna da Europan, batik bat idatzi dituen polizia-nobelei esker. Izarretara bidean zihoan txakurra gazte-nobelak dezenteko arrakasta izan zuen hala Suedian nola Europako iparraldeko hainbat herrialdetan, eta tetralogia bateko lehen liburua da. Liburu hori espainierara itzuli zutenean ezagutu nuen, Siruelak eginiko edizio polit batean. Euskarara Juan Mari Mendizabalek itzuli du, zuzenean suedieratik. Espainieraz eginikoa oso bertsio ederra iruditu bazitzaidan, ez gutxiago euskeraz eginikoa, hagitz ona, hala zehaztasunari nola erritmoari eta esapideei dagokionez.

Mankellek Joël izeneko mutiko baten historia kontatzen digu, Suediako hiri txiki batean 50eko hamarkadan kokaturik. Mutikoaren aita baso-mutila da, garai batean marinel ibilia, emazteak alde egin eta semearekin bakarrik gelditua. Aita-semeak bakarrik bizi dira etxebizitza zahar samar batean. Mutikoak sua egin behar izaten du egunero, etxea berotzeko eta janaria prestatzeko. Erosketak eta bazkaria mutikoaren ardura dira. Aita nekaturik etortzen da eta ez dute asko hitz egiten; bien arteko giroa hotz samarra da. Hala ere, aitak itsasoko istorioak kontatzen dizkio mutikoari, eta honen ametsa da egunen batean itsasoa ikustea, marinelen bizimodu zirrargarria ezagutzea. Azken batean, irudimena kontsolamendua da mutikoarentzat, irudimenaz gaintzen du eguneroko bizimoduak (eskola tartean dela) eragiten dio abaildura. Ildo horretatik dator izarretara zihoan txakurrarena; gau batean txakur alderrai bat ikusten du leihotik, iruditzen zaio izar baten atzetik dabilela txakur hori, eta istorioaren leit motiv bihurtzen da handik hara, mutikoaren irudimenaren sinbolo, mutikoaren bihotza ere azken batean izar baten (esperantza baten) atzetik baitabil.

Nobela hau inimizazio bide bat da: alde batetik irudimenari bidea ematen dio (gaztaroko abentura zirrargarriak amestuz), bestetik amaren idealizazioa zapuzten du (ama aita eta biak abandonaturik joan zen; aitak, hala ere, ez dio amari errurik egozten, tristuraz hitz egiten du hartaz), eta bestetik nerabe garaiko inimizazio erritoak agertzen ditu. Errito horien barruan daude, gauez kale elurtuetan barna txakurraren bila ibiltzea, bizikleta denda batetik lapurtu (probatzearren) eta itzultzea, hiriko zenbait marginatu beldurgarriekin duen harremana (igeltsero eroa, sudurrik gabeko emakumea; inimizazio irakaspen zoragarriak emango baitizkiote), aberaskume kanpotar batekin duen harremana eta harekin osatzen duen elkarte sekretua, bien artean eginiko gaiztakeriak eta balentriak...

Niri istorio zoragarria iruditu zait bere xumetasunean; badaki intriga sortzen, eta badaki tramankulu handiegirik gabe konpontzen. Batzuetan, egia da, igeltsero eroaren jokabideak paternalista eta "onegia" ematen du, eta berdin sudurrik gabeko andrearenak. Kritika gaiztoa eginez gero, gainera, gauez horrela behin baino gehiagotan kalean inor enteratu gabe ibiltzea agian ez da oso sinesgarria, eta izarretara bidean zihoan txakurrarena sartzeak ere bortxatu samarra ematen du. Baditu horrelako zenbait ñabardura, egia da; hala ere, istorioaren barruan badute koherentzia bat, eta nik behintzat ez dut konplizitatea sentitzeko arazorik izan; alegia, behin istorioan sarturik, sinetsi egin dudala, barnean harrapatu nauela. Eta iruditzen zait berdin gertatuko zaiola irakurle gazteari.